

ELKARTEAK

Negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sareek osarzen dituzte elkarteak. Aliantza mota bakoitza, ondo bereizitako estrategien emaitza da. Lau elkarte mota daude, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak, lehiakideen arteko aliantza estrategikoak, negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak materialen eskuragarritasuna bermatzeko.

LIMUk Raten enpresarekin dauka aliantza, enpresa horrek Euskal Herriko koltxoi erosoan saltzen ditu. Gure altzariekin batera koltxoiak merkeago erosteko aukera eskaintzen dugu. Horrez gain, aliantza bat egingo genuke eskualdeko udal ezberdinekin (hala nola, Sestao, Santurtzi edota Barakaldokoekin), herrietako biztanleek kalean uzten dituzten altzariak batu eta gero, altzari horien egurra berrerabiltzeko. Esate baterako, Sestaon batzen diren altzari txiki edo ertainak garbiguera eramaten dituzte, tamaina handiko altzariak BTB Bizkaiko Txintxor Berziklategiara, Ortuellako "La Orconera" berriz, auzoan dagoen birziklapen enpresara.